



## EGOERA

Indarrean dagoen sistemak, jarduera-esparru guztietara heltzen den etengabeko krisia bizi du. Eliteen politika ereduak sorturiko krisialdiak, bai Euskal Herrian eta baita mundu zabalean bizi garen herritarrak kaltetzen ditu, boterea eta aberastasuna gutxi batzuen esku egoten jarraituko duela segurtatzeko, gehiengoaren ongizatea xahutuz, etorkizuna hipotekatuz eta bizitza zein lan baldintzak kaskartuz. Sistemaren politika eredu hauek erabaki ahalmenik gabeko herritar otzanak eta menpekoak bultzatzen ditu, kontrolik eta gardentasunik gabeko inposaketa ekonomiko eta politikoen oinarritutako eredu ilunak ahalbideratzeko. Honi guztiari, nazio gisa dagokigun subjektu politikoaren ukapena erantsi behar zaio. Beste batzuk erabakitzen dute gure izenean.

Boterearen egitura politikoak, dinamika instituzional eta kudeaketa burokratikoak, erabat zurrinak dira, eta herritarrei arrotzak zaizkie. Erabakiguneak herritarren

egunerokotik kanpo geratzen dira, eta gauzak eurak kontuan hartu gabe egiten denaren ustea erabatekoa da. Gardentansunaren izenean ekimenak ugaritu diren arren, benetako neurri eta aldaketarik ez da eman trantsiziotik jaso dugun egituraketa administratibo zaharkituetan. Gardentasun ezaren egituraketa administratiboak ditugu eta euren kudeaketak herritarren esku-hartze aukerarik ez dute ematen.

Hala ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan sozialki historia eta tradizio handia duen “auzolana” eta “komunitateak” ditugu. Sozialki oso barneratua dugu autoeraketaren bidez eta borondatez herrigintza egitea. Mugimendu eta elkarte sare handi eta biziak ditugu. Gure benetako indarra, lanerako balore hauen baitan kokatzen da eta hori da hain zuzen EH Bilduk jaso zein sakondu beharrezko parte hartze kultura.

## HELBURUAK

Erabaki handi eta txikiei dagokionez herritarrak kalean nahiz erakundeetan ahalduentzeko garaia da. Parte hartzea eraldaketa lortzeko tresna gisa, demokratizazio-prozesu bat abiatzera goaz. Gure demokrazia eredu propioa sortzeko esperientzia pilotuak abiatuko ditugu. Praktikan jarri behar dira demokrazia zuzenerako guneak, lankidetzazko sozialerako sareak eta demokrazian sakontzeko esperientziak.

Herritarren partaidetza aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria, benetako, eraikitzailea eta eraldatzailea lortu behar dugu. Berdintasunaren ikuspegitik, egiturari dagokionez diskriminazio egoeran dauden sektoreen hitzari lehentasuna emanaz.

EH Bilduren parte hartze politika proposamena gaur egungo errealitatek abiatuko da. Halaber, egingarria, bideragarria eta pragmatikoa izango da herritarrak boteretzea ardatz harturik.

## NEURRIAK



### ZUZENeko DEMOKRAZIA

Herritarrak parte-hartze prozesu guztien erdigunean jartzea. Bereziki eguneroko bizitzarekin zerikusia duten arazo eta aspektuak, guztien ona eta ondare publikoaren kudeaketa kontuan hartzean. Berdintasun ikuspuntutik estrukturalki bereizkeria egoeran dauden sektoreen ahotsa lehenetsiz.

Herritarrak ahalduzko, informazioaren kudeaketa zuzena eta garbia eman. Gizarte mugimenduen -eskarien antolatzaile kolektiboak diren heinean- eta herritarren benetako parte-hartzea bermatzeko politika, kanal eta bitartekoak eskaini eta erraztea.

Kontsulten legea sortzea: non eskumenak ahalbideratuko dituen, galdeketa proposatu eta gauzatzeko Udal, Foru Aldundi, Jaurlaritza eta herritar mugimenduak.

Demokrazia zuzeneko esperientzia propioak sortu; galdeketa lotesleekin bukatuko diren parte-hartze prozesuak bultzatuko dira.

Parte hartze prozesuak ireki zor publikoari, ingurune ekologiari eta interes kolektiboari eragiten dieten azpiegitura eta inbertsio ekonomiko handien kasu guztietan. Parte hartze prozesu bakoitza garatzeko alde aurreko fasean, jarraitu beharreko metodologia zehatzak adostu, eta herritarrek, eraginpeko sektoreek eta inplikaturako mugimenduek parte hartzearen diseinuan eta ebaluazioan parte hartzen dutela bermatu. Hala nola, orain arte egin diren proiektuak berraztertze bidea eman.

Parte hartzean oinarrituriko hezkuntza bultzatzea, hezkuntza eragileekin batera adostua. Parte hartzean eta ondare publikoaren eta guztion ondarearen defentsan oinarrituriko unitate didaktikoen erabilera bultzatu. Ikasleek prozesu kolektibo gisa parte hartzen dutela onestea, eta, horretarako, irakaskuntza zentroen eskura bitartekoak jartzea. Hezkuntza herri osoaren erantzukizuna izanik, eskolaren eta herri / auzoen arteko harremanean sakontzea, etika humanistan, gure historiaren ezagutzan, analisi kritikoan eta eztabaida kolektiboan oinarritutako hezkuntza-filosofia batetik abiatuta.



### GOBERNU IREKIA

Parte hartze politikak izaera estrategikoz lehendakaritzan kokatuko ditugu.

Erakundeak demokratizatzeko eta desburokratizatzeko, egungo egituren aldaketa sakona ahalbideratzera goaz. EAEko administrazio publikoari buruzko eztabaida prozesua ireki, garden eta partekatua behar du, eredu publiko, sendo eta ireki batean amaituko dena, herritarren zerbitzuan eta gizartearen parte-hartzean oinarritua. Ebaluaziorako baliabideak ahaztu gabe.

Une oro administrazio publikoaren informazioa emango da. Informazioa ulerterreza eta gardena izango da. Herritarren eta komunitatearen parte-hartzera irekitzeko aukerarekin.

Erakundeek urteko parte hartze programa eta horri dagokion aurrekontua onartu beharko dute. Baita hauen ebaluazio sistema ere.

Aurrekontuei dagokienez, guztion baliabideek guztion parte-hartzea eta erabakia behar dute. Lehenik eta behin, herritarrei aurrekontuei buruzko informazioa eta prestakuntza eskaini behar zaie, ezinbestean, eta, hori ez ezik, premiak ere zehaztu behar dira eta guztion artean lehentasunak ezarri; era batean, gastua ikustatu behar da, kontua emateko formula gisa. Parte-hartzean eta eztabaidan oinarritutako prozesuen bitartez egingo dira aurrekontuak eta hauen jarraipena edo balorazioa.

Administrazio publikoen webguneek gardentasunaren eta informazioa eskuratzearen alorreko indarreko legeria betetzen dutela ziurtatzea eta administrazioarekiko harremana eta lankidetzaren guneak errazten dituzten tresnak indartuko dira webguneetan. Agenda publikoak eta ondasunen eta interesen aitortpenak, webgunean izango dira.

Kargu publikoen aforamendua funtsezko askatasun politikoak baliatzeko babesera murriztea. Ez dadila aukerarik izan ustelkeria edo karguaren erabilera okerra errazteko eta ondorioak saihesteko.

Ate birakariak saihesteko bete beharreko jokabide Kode Etikoa ezartzea. Berdintasunaren, inpartzialtasunaren, legezotasunaren, errespetuaren, osotasunaren, kontu-ematearen eta gardentasunaren printzipioetan oinarritutako Kode Etikoa izango da.

Kontratazio publikoak, kooperazio publiko-soziala bultzatzeko klausula sozialak jaso behar ditu eta legeria espezifikoa bat izan gaingostuak saihesteko.

Ustelkerian oinarrituriko jardunbide eta arriskuak prebenitzeko, ebaluatzen eta kontrolatzeko bulego independentea eratu.

Administrazio publikoen organoetan, agente sozial eta sindikalen parte-hartzea bultzatzea, lan batzordeetan bereziki.

Hedabide publikoen antolaketa eta funtzioen gaineko eguneratzea eman behar da eskaintza gizartearen beharretara egokitua izan dadin. Eguneratze ariketaren protagonista herritarrek izan behar dute eta prozesu osoan subjektu aktibo izan.